

Tolosa herria 2015



007/2015



“TOLOSA HERRIA” ARGAZKI LEHIAKETA 2015”

Argizaiola lehiaketaren sailkapenerako baliagarria 007/2015

PARTEHARTZAILEAK

Parte hartu nahi duten argazkilaria profesional nahiz amateur guztiak.

GAIA

Askea.

LANAK

Aurreko urteko lehiaketan aurkeztu gabeko 3 argazki partaideko, gehienez. Argazki guztiak egileak berak eginak izango dira erabat, hau da, ezin izango dute berea ez den elementurik edo atalik argazkian sartu.

FORMATUA

- JPG formatuko artxiboak (10eko konpretsioa).
- 300 ppp.
- Alderik luzeena 4000 pixelekoa izango da.
- Artxibo bakoitzaren tamaina 5 mega gehienez.
- Epaimahaikideek “Adobe RGB 1998” koloregunean ikusiko dituzte argazkiak.
- Artxiboaren izena argazkiaren zenbakiarekin hasiko da eta ondoren, izenburuak jarraituko du. Adibidez: 1_patata.jpg

IZEN EMATEA ETA NORA BIDALI

- https://secure.jotformeui.com/Targazki/Tolosa_herria

Izen ematea doainik da. Itxaron artxibo karga osoaren oharra agertu arte.

ARGIBIDEAK

- Targazki@gmail.com
- www.targazki.com

JASOTZE DATA

2015eko maiatzaren 31an lanak jasotzeari emango diogu bukaera.

EPAIMAHAIA



Miguel Cabezas 2015eko "TOLOSA HERRIA" lehiaketako epaimahaiko partaide. Nazioarteko, estatu mailako zein eskualdeko hainbat lehiaketaren irabazle izan da. Bere argazki lanak estatuan zehar erakutsi dizkigu Zaragozan, Bartzelonan, Madrilan, ... Era berean, Polonian, Txinan, Japonian eta Estatu Batuetan. Bere lanak zenbait arte-fondotan ere badaude: Fundación Vila Casas, fundación Internacional de las Artes FIART, ...

Miguel Irungo Argazki Elkartekidea izateaz gain, Confederación Española de Fotografía (CEF) eta Fédération Internationale de l'Art Photographique (FIAP) erakundeetako kidea ere bada.

Miguel Cabezas azken aldi honetan kontsidera daiteke Fine Art sailaren barruan, argazkilari esanguratsuenetako bat.

Bere lanari buruz gehiago jakin nahi izanez gero bere web orrira jo: <http://miguelcabezasfotografias.com/>



Xabier Mata 2015eko "TOLOSA HERRIA" lehiaketako epaimahaiko partaide. Bere espezialitatea mendi argazkilaritza da, batez ere, eguraldi txarrak eta aldakorrek eskaintzen duen argi berezia islatzen maisua da. Bere teknika kuttuna zuri-beltza da, honek eskaintzen duen espresibitate poetikoarengatik.

Bere lan batzuk nazioarteko zein estatu mailako hainbat erakusketatan erakusi ditu.

Bere helburuen artean, nazioarteko mendi-argazki lehiaketa antolatzea zen, eta Club Vasco de Camping Elkarteari esker gauzatu ahal izan du, CVCEPHOTO sortuz.

ACEF "Confederación Española de Fotografía" delakoaren Artista 2013an.

AFIAP "Federación Internacional de Fotografía" delakoaren Artista 2014an.

Bere lanengatik lortutako sari batzuk honoko hauek dira:

2014ko ARGIZAIOLA lehiaketan 1. Saria.

Ohorezko Aipamena, MEMORIAL MARIA LUISA, "alpinismo" sailean.

FIAPeko Urrezko Domina, Photo Competition "Kumanovo - Macedonia" 2013.

FIAPeko Urrezko Domina + SFGko Urrezko Domina + "Marqués de Rocaverde" trofeoa Gipuzkoako Trofeoan XLI. Edizioan (2013an)

Association of Polish Art-eko Urrezko Domina, II. Bardaf International Exhibition-en "Slovaquie" 2013an.

FCFko Urrezko Domina IV. International Photography Contest "Sant Just Desvern"en 2013an.

FIAPeko Zilarrezko Domina, XXVII. Certamen Fotográfico Internacional "El trabajo y los Oficios" delakoan 2013an.

1. Saria MONTPHOTO Natura Lehiaketan "Mendi Jarduera" sailean 2013an.

1. Saria MONTPHOTO Natura Lehiaketan "Naturak inspiratuta" sailean 2013an.


1. Saria KIROLGI Kirol Argazki Lehiaketan, kolore sailean, 2013an.

3. Saria MONTPHOTO Natura Lehiaketan "Mendi Jarduera" sailean 2009an.

1. Saria MONTPHOTO Natura Lehiaketan "Mendia" sailean 2008an.

Bere lanari buruz gehiago jakin nahi izanez gero bere web orrira jo:

www.fotoxabi.es



Javier P. Fdez. Ferreras 2015eko "TOLOSA HERRIA" lehiaketako epaimahaiko partaide. Lanús-en (Argentina) jaio zen, baina urtebete zeukala, Barakaldora ekarri zuten. Orain Berangon (Bizkaia) bizi da.

Argazkigintzarekiko grinak jota, bost kontinenteen zehar bidaiak egin ditu. Bere gai kuttunak erreportaia eta erretratoa dira. Kirol-argazkia eta bodegoietan ere aditua da.

Eibarko Klub Deportiboko Argazki saileko kidea da, era berean, CEF (Confederación Española de Fotografía) eta FIAP Federación Internacional del Arte Fotográfico) erakundeetako kidea ere bada. Argazkigintzan autodidakta izanda, honoko sariak jaso ditu:

FIAP (Fédération Internationale de l'Art Photographique)

AFIAP "Artista", 2000. urtean.

EFIAP "Excelencia" delakoa, 2003an.

MFIAP, "Maestro" delakoa, 2014an.

I.S.F. (Image Sans Frontiere)

ED-ISF (Distinguido Expositor), EH-ISF (Honorable Expositor) eta ER-ISF (Reconocido Expositor) delako sariak 2011. Urtean.

C.E.F. (Confederación Española de Fotografía)

ACEF (Artista) 2006an, ECEF (Excelencia) 2011n eta MCEF (Maestro) 2013an lortutako tituluak ditu.

CEFek emandako "Premio Nacional de Fotografía" delakoa 2012. Urtean "Confederación Española de Fotografía"k Zaragozan egindako Batzarrean.

Bere lanari buruz gehiago jakin nahi izanez gero bere web orrira jo:

www.worldphotography.it

SARIAK

1. saria: 300€ + trofeoa
2. saria: 200€ + trofeoa
3. saria: 100€ + trofeoa

Bertako saria: 100€ + Gorrotxategiren produktu sorta sailkatutako lehen tolosarrarentzat.

Irabazle bakoitzak sari bakar bat har dezake. Klasifikazioan Euskal Herriko lehen hiru argazkilariek Argizaiola Lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute.

SARI BANAKETA

2015ko ekainaren 20an 12:00etan Tolosako Kasinon.

ERAKUSKETA

Epaimahaiak hoberen klasifikatutako argazkiak Tolosako Kasinoko areto nagusian erakutsiko dira 2015ko ekainaren 20tik uztailaren 4ra. Ordutegia 18:30 – 20:00 astelehenetik ostiralera eta 12:00 – 14:00 larunbatean, igandeetan eta jaiegunetan.

KATALOGOA

Erakusketan izango diren argazki guztiekin katalogo digitala egingo da eta Targazki Elkartearen web orritik deskargatu ahal izango da www.targazki.com.

OHARRA

Lehiaketa honetan parte hartzeak arau hauek aldez aurretik onartzea eskatzen du. Sortu litekeen edozein zalantza edo ezustekoa antolakuntzak argituko du. Aurkeztutako argazkiak egilearen jabegoa izango dira, hala ere, lehiaketaren erakunde antolatzaileak aipatutako argazkiak argitaratzeko eskubidea izango du (foiletoetan, publizitatean, sare sozialetan, lehiaketaren web orrian, ...) edota helburu komertzialik gabe erakusteko eskubidea izango du, beti ere egilearen izena aipatu egingo da. Saritutako lanak eta finalista gelditutakoak fisikoki erakutsiko diren aleak TARGAZKI elkarte antolatzailearen jabegoa izango dira, eta aurrerantzean argitaratu ahal izango ditu, beti ere egilearen izena azalduz eta etekin ekonomikorik atera gabe.

Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.